

Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1089

AGINDUA, 2009ko otsailaren 4koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena; horren bidez bigarren aldiz aldatzen da turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzen programa arautzen duen agindua.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko maiatzaren 17ko Aginduak turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzen programa arautzen du. Horren ondoren, 2008ko otsailaren 25eko Aginduak aldatu zuen, eta orain, laguntzen programa «Hor Dago» 2009-2012 Euskadiko Turismo Marketing Planean zehazten den Euskadirentzat Sustatzeko eta Merkaturatzeko Planera nahiz turistei informazioa emateko sistema berrietara egokitzeko, Aginduaren artikuluetan hainbat aldaketa egin beharra ikusi da.

Horiek horrela, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengo artikulua.– Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzen programa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko maiatzaren 17ko Aginduaren 3. artikuluko 2.A idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

«2.A – “Euskadi ... made in” markakako Turismo Sustatzeko Programa Orokorra. Jarraian adierazten diren ataletako bi jardura gutxienez hartu beharko dituzte barnean programa horiek:

Sustapen-ekintzak egitea eta azoketara, jardunaldietara eta abarretara joatea. Azken horietara joatean, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak parte hartzen badu, sailak berak koordinatu beharko du.

Turismoaren arloko sustapen-materiala sortzea eta argitaratzea (adibidez, azken kontsumitzailearen liburuxkak, produktuen inguruko liburuxkak, DVDa eta abar, sustapen-opariak izan ezik).

Turistei informazioa emateko sistema berritzaileak (web-orriak garatzea, gailu mugikorrek eta abar).»

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

1089

ORDEN de 4 de febrero de 2009, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, de segunda modificación de la Orden por la que se regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística.

La Orden de 17 de mayo de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística. Posteriormente, fue modificada por Orden de 25 de febrero de 2008, y ahora, al objeto de adecuar el programa de ayudas tanto a la puesta en marcha del Plan de Promoción y Comercialización para Euskadi, que se concreta en el «Hor Dago! Plana» Marketing Turístico de Euskadi 2009-2012, como a los nuevos sistemas de información al turista, se ha visto la necesidad de llevar a cabo determinadas modificaciones en su articulado.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo primero.– Se modifica el apartado 2.A. del artículo 3 de la Orden de 17 de mayo de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística, quedando redactado en los siguientes términos:

«2.A - Programas Globales de Promoción Turística bajo la marca “Euskadi ... made in”. Estos programas deberán incluir necesariamente actuaciones de, al menos dos, de los apartados que seguidamente se señalan:

Realización de acciones promocionales y asistencia a ferias, jornadas, etc. En la asistencia a estas últimas, y cuando participe el Departamento de Industria, Comercio y Turismo, esta deberá ser coordinada con el mismo.

Creación y edición de material promocional turístico (ej./folletos de consumidor final, folletos de productos, DVD, etc., excepto regalos promocionales).

Sistemas innovadores de información al turista (desarrollos web, dispositivos móviles, etc.).».

Bigarren artikulua.— Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzen programa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko maiatzaren 17ko Aginduaren 3. artikuluko hirugarren paragrafoaren 2.A.1.1 idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

«- Toki-erakundeak: onartutako gastu garbiaren % 40, eta gehienezko zenbatekoa 15.000 euro izango da».

Hirugarren artikulua.— Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzen programa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko maiatzaren 17ko Aginduaren 3. artikuluko 2.C idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

«2.C - «Hor Dago» 2009-2012 Euskadiko Turismo Marketing Planean zehaztutako produktu-lerroetan bilduta dauden turismo-produktu berritzaileak sortu eta merkaturatzea, honako hauek hain zuzen ere: Euskading, hondartza, kultura-turismoa, city break-ak, landa-turismoa, natura, gastronomia eta ardoak eta meetingak.»

Laugarren artikulua.— Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzen programa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko maiatzaren 17ko Aginduaren 3. artikuluari 10. puntua erantsi zaio eta honela geratu da:

«10.— Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta dauden erakunde edo pertsona eskatzaileak ezin izango dira agindu honetan araututako laguntzetara bildu, ezta haritarako ezgaitzen dituen legezko debekuaren eraginpean daudenak ere, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumezkoen eta Gizonezkoen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.»

Bosgarren artikulua.— Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzen programa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko maiatzaren 17ko Aginduaren 4. artikuluko 1. puntua aldatu da eta honela geratu da:

«1.— Agindu honetan ezarritako laguntzek 2006ko abenduaren 15eko Batzordearen 1998/2006 zenbakiko Araudian (EE) ezarritako minimis arauak errespetatuko dituzte. Hain zuzen ere, Erregelamendu hori EE Itunaren 87. eta 88. artikuluko minimis laguntzei edo Europar Batasunaren esparruan ildo beretik emandako bestelako jarraibide edo xedapenei aplikatzeari dagokio.»

Artículo segundo.— Se modifica el apartado 2.A.1.1, párrafo tercero, del artículo 3 de la Orden de 17 de mayo de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística, quedando redactado en los siguientes términos:

«- Entidades locales: 40% del gasto neto admitido con un importe máximo de 15.000 euros»

Artículo tercero.— Se modifica el apartado 2.C. del artículo 3 de la Orden de 17 de mayo de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística, quedando redactado en los siguientes términos:

«2.C - Creación y comercialización de productos turísticos novedosos y que se encuadren en las líneas de producto definidas en el «Hor Dago plana» Marketing Turístico de Euskadi 2009-2012 y que se citan a continuación: Euskading, playa, turismo cultural, city breaks, turismo rural, naturaleza, gastronomía y vinos, y meetings.»

Artículo cuarto.— Se añade el punto 10 al artículo 3 de la Orden de 17 de mayo de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística, quedando redactado en los siguientes términos:

«10.— No podrán concurrir, a las ayudas reguladas en la presente Orden, aquellas personas o empresas que se hallen sancionadas administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvención o ayudas públicas, ni la que estén incurso en prohibición legal alguna que las inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.»

Artículo quinto.— Se modifica el punto 1 del artículo 4 de la Orden de 17 de mayo de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística, quedando redactado en los siguientes términos:

«1.— Las ayudas establecidas en la presente Orden, respetarán las reglas de minimis establecidas en el Reglamento (CE) n.º 1998/2006 de la Comisión de 15 de diciembre de 2006, relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado CE a las ayudas de minimis u otras directrices o disposiciones emanadas al efecto en el marco de la Unión Europea.»

Seigarren artikulua.— Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzen programa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko maiatzaren 17ko Aginduaren 11. artikuluko f) idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

«f).— Onuradunak nahitaez aipatu beharko du Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lankidetzaz, «Euskadimade in» turismo-sustapenaren mezua eta sei turismo-markak zabaldua Ikus Identitatearen Eskuliburuan adierazten den moduan. Era berean, proiektua gauzatzeko erabili diren produktuen ale bat emango da, hala nola, azterketak, liburuxkak, programak, DVDa eta abar; baita proiektua egin dela egiaztatzeko eskatzen den beste edozein dokumenturena ere proiektua egin dela justifikatzen den unean.»

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Turismo sailburuordeari eskumena ematen zaio agindu hau aplikatzeko beharrezkoak diren ebazpenak eman ditzan, baita agindu horri dagokionez sortuko diren zalantza zehatzak argi ditzan ere.

Bigarrena.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean Agindu hori.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 4a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

Artículo sexto.— Se modifica el apartado f) del artículo 11 de la Orden de 17 de mayo de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística, quedando redactado en los siguientes términos:

«f).— El beneficiario deberá necesariamente hacer mención de la colaboración del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, mediante la difusión del mensaje de promoción turística «Euskadimade in» y sus seis marcas turísticas en la forma indicada en el Manual de identidad visual. Asimismo se hará entrega de al menos un ejemplar de aquellos productos en que se haya plasmado el proyecto, tales como estudios, folletos, programas, DVD, etc.; así como de cualquier otro que se solicite para verificar la realización del proyecto, en el momento de la justificación de la realización del mismo.»

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Se faculta a la Viceconsejera de Turismo para dictar las resoluciones necesarias para la aplicación de esta Orden, así como para resolver las dudas concretas que con relación a la misma se susciten.

Segunda.— La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de febrero de 2009.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.